

# Aretxagazeta


ETA GAINERA...

## Ze barri?

ASTEKO GAIA  
**Urdelardero**  
egunean /08


DIRU LAGUNTZAK  
**Gobernuz Kanpoko**  
Erakundeak /09

LEINTZ GATZAGA  
**Elurrak sortutako**  
lehen arazoak /10



## TSUNAMIAK KALTETUTAKOEI DIRULAGUNTZAK

KUTXA JARRI DU UDALAK DIRUA BATZEKO



**GUARDIAKOFARMAZIA**

ZAPATUA, 29  
FRAILE. Herriko Plaza 10..... 943 79 21 99  
DOMEKA, 30  
FRAILE. Herriko Plaza 10..... 943 79 21 99

**TELEFONOJAKINGARRIAK**

**OROKORRAK**  
Almen ..... 943 71 49 07  
ARETXAGAZETA ..... 943 79 86 21  
Faxa ..... 943 77 18 54  
Basotxo ..... 943 77 09 81  
Euskaltegia ..... 943 79 21 68  
Gizarte laguntzailea ..... 943 71 18 62  
Hezibide elkarte ..... 934 79 31 32  
Industrialdea ..... 943 79 62 80  
Institutua ..... 943 79 79 00  
Kirol etxea ..... 943 71 26 28  
Kultura etxea ..... 943 71 10 27  
Kurtzebarri Eskola ..... 943 79 00 49  
Kurtzebarri BHI ..... 943 79 57 40  
KZGunea ..... 943 79 94 44  
Liburutegia ..... 943 71 18 62  
Loramendi EE ..... 943 77 09 70  
Ludoteka ..... 943 79 05 81  
Mankomunitatea ..... 943 79 30 90  
Murruxio ME ..... 943 79 93 74  
Musika Eskola ..... 943 79 36 50  
Osasun etxea ..... 943 71 19 59  
Otalora ..... 943 71 24 06  
Parrokia (bulegoa) ..... 943 79 18 42  
Pausoka Haur Eskola ..... 943 77 03 77  
Postetxea ..... 943 79 28 31  
Santa Rita Ikastetxea ..... 943 79 17 00  
Taxi geltokia ..... 943 77 12 64  
Udal Bulegoak ..... 943 71 18 62  
Udaltzaingoa ..... 943 71 18 63  
Urats Gain ..... 943 79 99 11

**UDALTAINGOA**  
Arrasate ..... 943 79 14 39

**LARRIALDIK**  
SOS Deiak ..... 112  
Eskualde Ospitalea ..... 943 03 53 00  
Ertzaintza ..... 943 79 71 99  
Gurutze Gorria ..... 943 76 55 76  
Larrialdiak ..... 943 46 11 11  
Suhiltzaileak (Oñati) ..... 943 78 28 00

**MEZAK**

**ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA**  
Domeketan: 11:00, 12:00  
Zapatuetan: 19:30  
Lanegunetan: 19:30

**SANTA RITA**  
Domeketan: 09:00  
Zapatuetan: 18:30  
Lanegunetan: 08:00

**BASERRI AUZOETAN: LARRIÑO**  
Domeketan: 12:30

**MENDIOLA**  
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

**GELLAO**  
Domeketan: 11:30

**OHARRAK**

**EZOHIKO OSOKO BILKURA**  
Udal aurrekontua aurkeztu-ko du udalbatzak gaur, egubakoitza, egingo duen ezohiko osoko bilkuran; 18:30ean, udaletxean.

**EGUZKI-ALDE ELKARTEKO JAIA**  
Eguzki-Alde elkarteak jaieguna ospatzen du San Blas egunean. Hori horrela, domekan, hilak 30, elkarte-an hildako bazkideen aldeko meza izango dute Apotzaga-Etxebarri auzoko Sailuenteko ermitan, 11:00etan. Ostean jakiak bedeinkatuko dituzte. Handik jaitsitakoan salda beroa eskainiko dute Eguzki-Alde elkartearen.

**KEPA URRARENAKO ARGAZKIA**  
Kepa Urraren urtebetetzea datorrela-eta zoriontzeko argazkia aterako dute, domekan, hilak 30, 13:30ean Urbaltzeko eskaileretan.

**SAN BLAS EGUNA**  
Eguenean, otsailak 3, San Blas eguna ospatuko dute Apotzaga-Etxebarriko Sailuenteko ermitan. 10:30ean izango da meza, eta 11:00etan jakien bedeinkapena.

**SANTA AGEDA BEZPERA**  
Otsailaren 4an, Santa Ageda bezpera, baserriz baserri joango dira kantuan eta eskean kintoak, eta Santa Ageda egunean, kaleko etxeetatik pasatuko dira.

**LORAMENDIRENAGENDA**

**TABERNENDAKO I. MOZORRO LEHIAKETA**  
Mozorro lehiaketa antolatu du Loramendi EEK tabernendako. Otsailaren 6an, Aratuste-domeka, izango da lehiaketa, eta baldintza bakarra jarri dute Loramendiko kideek: euskal mitologiarekin zerikusia duen mozorroarekin apaintzea taberna. Izena emateko azken eguna otsailaren 3a, eguna, izango da.

**ORAINDELA 8URTEARETXABALETAN**

**ETBko Euskaraokea saioa grabatu zuten herrian**

Euskal Telebistako Euskaraokea saioa grabatu zuten 1997ko urtarrilaren 30ean. Aratz taldeari eta Kultura Sailari esker etorri ziren grabatzera, eta umeek eta nagusiek hartu zuten parte, tartean Igor Arenazak eta Xabier Lazpurrrek. Aratz taldeko kideak ere kantuan ibili ziren taulara igota.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*“Lelotu”*

— Azkenian mutikoa lelotu bia dau.



JON IRAEGI

**LIBURUTEGIKOTXOKOA**



**LOTUTA EGON ARREN Kokein**

Gaztelupeko Hotsak, 2004

Kokein talde eibartarraren bigarren diskoa da honako hau. Duela lau urte lanean hasi zirenetik taldean hainbat aldaketa egin dituzte, eta orain bost lagun dira: Zalao ahotsean, Iker eta Txitxes gitarretan, Jatsu baxuan eta Lete baterian. Rock taldea da Kokein, baina etiketak alde batera utzi eta estilo propioa lortu du. Letretan bizitzaren alde positiboa bilatzen omen dute “lotuta egon arren”.

Hamaika abesti eta CD-ROM bideoa gehitu dizkiote lanari. Disko borobila egin du Kokeinek eta talde berrien artean interesgarrietakoa dela erakutsi digu.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

**Adi!**

Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak!

**EKAINAREN 7tik AURRERA**  
**Zorion agurrak**  
**ASTELEHENEKO**  
**GOIENKARIAN!**

**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

**Gainera...**  
**Zorion agurrak, SMS bidez!**

Senitarteko, lagun, ezagun edo gustuko duzun neska/mutila bere urtebetetzean zoriondu nahi baduzu, **Asteleheneko Goienkaria-k** beste aukera bat emango dizu: SMSa bidaltzea.

**L. GONZALEZ**  
PINTURAK  
Pintura orokorra eta enpapelatua

Araba ibilbidea 24, 3-D  
ARETXABALETA  
686 113 581 / 943 79 65 46

**ANDRA MARI**  
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea 3  
ARETXABALETA  
Tel. 943 79 29 26

**Dorleta**  
taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi 8  
Aretxabaleta  
Tel. 943 79 94 15

**JAR EZAZU**  
**HEMEN**  
**ZURE**  
**PUBLIZITATEA**


**Aretxagazeta**

# ATREBENTZIAEZPADA/ Gustoko dozu edurre? Mendixen ikustie gureko zeuke edo herrixe zuriketie?



**YOLI MOLINA**  
Langillie

Bai, baiñe mendixen. Ez dot gure herrire aillēgetarik, molestia asko sortzen dittu eta. Mendixen ondo pasau leike edurrekin: jolas egin, lerakin ibilli... Baiñe herrixen ez.




**VICENTE CARRASCO**  
Langillie

Apur bat egittie ondo dau, baiñe gutxi. Automobillaz ibiltteko arazo asko emuten dittu, eta ez dot uste biherdan moduen gertatute gauzenik aurre egitteko; paliekin kendu biherko dogu.



**PURI BELTRAN DE HEREDIA**  
Langillie

Bai, baiñe mendixen baka-rrik; kaliek txuriketie ez jat bape gustetan. Mendire fan eta han umiekin jolasien ibiltte oso politte da, baiñe herrixen ez daixela buruhausterik sortu.




**AITOR GABILONDO**  
Langillie

Bai, asko, baiñe mendixen hobeto; izen be, asko egin ezker eta automobillien ibilli biher ezker arazuek sortzen dittu. Ganoraz egitten badau makiña danen biherrien ibilliko gare.



**MARIA JESUS OREGI**  
Langillie

Mendixen bai, baiñe kalien ez. Gu lehen be asko ibillittekuek gare edurretan, eta problema asko sortzen dittu. Oin, hala eta be, askoz hobeto gertatute gauz edurrei aurre egitteko.



**SANTOS MESONERO**  
Jubilaue

Edurre bai, baiñe mendixen; edurrekin edo barik neri mendixe gustetan jat. Gaiñera, edurre ikusteko da, baiñe lana egin biher izen ezker arazuek beste-rik ez dau emuten.

## TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK BOTIKA PAREKO AUTOAK** Mitarte kalean zegoen botika metro batzuk harantzago eraman dute, eta orain Araba ibilbidean dago. Botika handiagoa da, eta espaloian leku zabalagoa dago orain, hortaz, aldaketa onerako izan da. Hala ere, autoan etortzen direnek edozein tokitan uzten dute aparkatuta, gehienetan oso txarto, bai oinezkoei bai errepedean dabilzan autoei traba eginez. /M.A.

## ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

### Kintoak entseguetan

Hasita daude Santa Ageda multilak entseguak egiten. 1986an jaiotakoak izango dira aurten.

ASTEAN BEHIN /05

### Asiako kaltetuei laguntza

Tsunamiaren eraginez Asia hego-ekialdean kaltetutakoei laguntzeko dei egin du Udalak.

KIROLAK /06

### Patinaje eta skate ikastaroak

Kirol zerbitzuak patinaje eta skate ikastaroak antolatu ditu otsailera-ko. Izena emateko epea zabalik dago.

## ASTEKODATUA

# 7.889

### EURO EMANGO DIZKIE UDALAK ASIAKO KALTETUEI

Tsunamiaren erruz bost milioi lagunek jasan zituzten kalteak Asia hego-ekialdean. Udalak 7.889,69 euro bidaliko dizkie, eta herritarrak animatu gura ditu ahal duten neurrian laguntzeko.

## BESTEKEESANA

**“** Espainiako Estatuak lege propioak bere interesen arabera bortxatu eta aldatzea ez da berria. 3/4en kasua eta kondenak osorik betetze-arena bezala. Hori ere presoan espetxe zigorra luzatzeko beste trikimailu bat da. Estatuaren joko zikinaren usaina nabaria da. Etxean izan arte borrokan segituko dugu.

**PERU URALDE**  
Asteleheneko Goienkaria/05-01-24

Euskararen gainean kristoren interesa daukate Galesen, eta egunero 10 minutuko eskolak ematen ditut. Eurena oso gaitza da ahoskatzeko. Eskolak Euskal Herriaren gainean dezente daki, Zeberioako eskolarekin dagoelako harremanetan. Pentsa, Olentzero dago eskola sarreran!

**IRATI PAGOAGA**  
Arrasate Irratia/05-01-19

## HERRITARRENBERBAK/ Irati Pagoaga



*Cymru-etik...*

**G**aurko kale kantoitik haixe zirriztu hotzak datoz, ez dauko Atxabaltan antz haundirik. Gaurkuen, urrintxuautik idazten nabil, Betws y Coed herritxotik, Gales.

Nahiz eta Erresuma Batuko lurre izen, hau ez dau oso batue. Hamen be badauz askiek izen gure dauien herrixek, eta tartien Gales bera.

Hizkuntza aldetik, egoerie ez dau normalizaute. Hamen welsh berba eiten dauienak bigarren mailako hiztunek die, euskaldunok gure herrixen moduen. Ingelesa dexente entzuten da, baine eskoletan jo eta su dabitiz welsh erakusten.

Welsh-a gales herrialde honetan berba eiten dauien hizkerie. Egixe esan, nahiko gatxa da hamengo berbak biherdan moduen ahoskatzie. Dexenteko lanak eukiten ditugu bertan *hwyl fawr* (agur) edo *bore da* (egun on) esateko. Barre galantak eiten ditue gure konture!!!

Euskerie barriz asko gustau jakue hamengo umetxuei, eta hor gabitz egunero euskarazko berbatxuek erakusten. Martxa onien ikesten dabitiz, eta leister hor ditugu hamengo ume ulegorrixek euskaraz kantuen.

Karnabalen useine ekarten dau hego haixiek hortik, eta

Atxabaltako kaliek polito-polito ekinde egongo die karnabalen giruen sartzen. Geroz eta gutxiau geraketan da lotsie etxien itxi eta kalera urteteko egune. Burukomin dexenteaz ibiliko zarie batzuk, baine lasai, urten kalera eta hartu arnasia sakon!!! Kanuto aroma gozue ondio be usainduko dalako kalien!!! Ke behelaino hortan ein lekue imginazinuei bere bidie etxen zarien karnabal domekan!!!

Bukaketako, Cymru-ko ezkinatxotik agur bat danoi eta ondo segi! Animuek Jarrai-Haika-Segiko gazte auzipetuei. Kanpuen gazenak eta bertan egoteko aukerarik ez daukou- nouk be hartuko dou beer bat zuen mozorruen alde!!!

**“Hamen welsh berba eiten dauienak bigarren mailako hiztunek die, euskaldunok gure herrixen moduen”**

# Aretxagazeta

Durana 11  
20550 ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA  
Mirari Altube

ERREDAKZIOA  
Mirari Altube  
Zuriñe Velez de Mendizabal

MAKETAZIOA  
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA  
Itsaso Berezibar

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
SS-378-94

ISSN  
1134-2609

TIRADA  
2.700 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako Kultura Saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Leintz Gatzagako Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

## Edurrek zurittute

**B**adatorrela, badatorrela eta azkenien aillegau jaku edurre. Aztoratute ebitzen ume eta nausixek, eta edurren seinale izeten da hori. Bide bazterrak zurittu dusku astien, eta orduen sortu jaku buruhaustiek: automobillek ezin ibilli. Ez gabela ezer automobil barik...

**Alkatie** egon zan martitzenien Goitbeko Debarri saiuen. Ez zan, baiñe bakarrik fan, **Xabier Sarasua** eruen euen lagun. Ez dakit herritarroi kezkat argitu euskun, izen be, makiñatxo bat galdera egin eutsien Goienaneten. Tranbian gainien ez euen gauza garbirik esan, baiñe badakit Durana kalien bizi dien bizilagunek kezkatu antzien dabitze eta proiektuei alegaziñuek jarri gure dutziela. Izen be, derrigorrez pasau biher ete da herri erdi-erdittik? Horren barri gehixau jakin gure dauenak udaletxera fan besteik ez dauko. Bestalde, udaletxeko sarreran kajatxo bat jarri daue. Asiara bielketako dirua batzeko da. Jente askok seguru asko honez gero emungo euen dirue, baiñe baten bat falta bada aukera politte dauko ointxe.

Eskerrak edurre oin egin dauen, Aratustietan eginez gero ez zan giro izengo eta. Banoie mozorrue gertaketan...

**OHITURA** / Aurten bi bider bakarrik egingo dute dantzan Herriko Plazan: Santa Ageda egunean eta Aratuste-domekan

# Santa Ageda mutilak azken entseguak egiten dabilta Iturrigorri frontoian

MIRARI ALTUBE

**Azken entseguak egiten dabilta Santa Ageda mutilak; izan ere, hurrengo astean Santa Ageda eguna ospatuko dute. Aurten, 1986an jaiotako mutilei egokitu zaie kantuan eta diru eskean ibiltzea. Aratuste-domeka bitartean jai giroa izango dute.**

Gaiean dugu otsaila, eta otsail hotzarekin batera Santa Ageda eguna dator. Kintoen kantu eta dantzak eta etxafuego hotsak izango ditugu egun horietan. Horretarako, baina, entseguak egin behar aurretik.

### ENTSEGUETAN BURU-BELARRI

Aspaldiko ohitura da gurean soldadutzara joan behar zuten mutilak kantuan eta eskean ibiltzea Santa Ageda bezpera eta egunean. Orain ez dira soldadutzara joaten, baina ohitura onei eutsi egin behar zaie, eta halaxe egiten dute gure herriko gazteek. Aurten, 1986an jaiotako mutilak elkartuko dira. 30etik 40ra bitartean izango dira, eta guztiak ere gogor dabilta entseguak egiten egunotan. Jokin Antxia txistularia dute lagun Iturrigorri frontoian, eta Ramon Erañak nesken aurrean egin behar duten agurra erakutsi die. Dagoeneko ederto egiten dute batzuek dantzan, eta guztiak gura dute ondo egin herritarren aurrean. Hotz handia egiten du egunotan, bai-



MIRARI ALTUBE

Ramon Erañak eta Jokin Antxia txistulariak egiten diete lagun Santa Ageda mutilei Iturrigorri frontoiko entseguetan.

na Santa Ageda mutilak berotuta ibiltzen dira ilunkaretan.

### DANTZAN BI EGUNEAN

Santa Ageda bezperan goizean goiz jaiki eta baserriz baserri ibiliko dira kantuan eta eskean.

Herriko bederatzi auzoetako baserri guztietara heltzen saiatuko dira. Hurrengo egunean, Santa Ageda, herrian bertan geratuko dira, eta kaleko etxebizitza guztietatik pasatu gurako dute kantuan egin ostean. Arratsaldean,

ostera, dantzan egingo dute Herriko plazan. Aratuste-domeka bitartean domekero egitea da ohitura; aurten, baina, Santa Ageda hurrengo eguna da Aratustea. Hor-taz, inoiz baino dantza gutxiago egingo dute, bi egunean.

## LABUR

### Aurtengo udal aurrekontua aurkeztuko dute gaur arratsaldeko ezohiko osoko bilkuran

Gaur, egubakoitza, 18:30ean, ezohiko osoko bilkura egingo du udalbatzak. Hiru gai izango dituzte aztertzeko, eta hiruretan garrantzitsuena aurtengo udal aurrekontua izango da. Horrekin batera, errekarren beste aldean dagoen sektorearen behin-behi-

neko onarpena egingo dute; eta bukatzeko, Europako Konstituzioaren gaineko erreferenduma egiteko otsailaren 20an hauteskunde mahaietan egon beharko dutenen izenak aterako dituzte. Hurrengo astean jakinaraziko dute zeintzuk izan diren.

### Kepa Urra zorientzeko argazkia aterako dute

Coruñaiko Curtisko kartzelan dagoen Kepa Urraren urtebetetzea izango da otsailaren 13an. Hori horrela, eta zorientzeko asmoarekin, argazkia aterako dute domekan, hilak 30, 13:30ean, Urbaltzeko eskaileretan. Gura duen guztia hurrera daiteke.

### Egunean San Blas eguna Sailuenten

Egunean, otsailak 3, San Blas eguna da, eta Apotzaga-Etxebarri auzoko Sailuente ermitan ospakizuna egingo dute. 10:30ean meza esango dute, eta ostean, 11:00etan jakiak bedeinkatuko dituzte. Eztarriko minik ez izateko ei dira jaki horiek.

GARBITU S. KOOP

## Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea  
ARETXABALET  
Tel: 943 79 01 28

**Angelines**  
AUTOZERBITZUA


Frutan eta txarkuterian espezialitatea

Mitarte 16 • 943 79 61 42  
ARETXABALET

Jou Díaz  
Harakina

Loramendi 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALET

BEIRALAN



KRISTALDEGIA

Markoztatze profesionala  
prezio ezin hobean!

Herriko plaza 8, behe • Aretxabaleta  
943 79 81 78 / 670 997 274

**LAGUNTZA/** Udaletxean kutxa jarri dute dirua batzeko, eta Karitasi emango diote

# Tsunamiak kaltetutakoei laguntzeko eskatu du Udalak

MIRARI ALTUBE

**Albiste ikaragarriak etorri zaizkige Asia aldetik abenduaren 26az gero. Hori horrela, tsunamiaren eraginez kaltetuta gertatu direnei laguntza bidaltzea erabaki du Aretxabaletako Udalak. Ez hori bakarrik, herritarrek ere laguntza ematera animatu gura ditu.**

Kutxa jarri du Udalak dirua batzeko. Otsail osoan egongo da udaletxekeo harreran, eta ondoren Karitasi emango dio tsunamiak kaltetutakoen artean banatzeko.

## IA 7.900 EURO EMAN DITU UDALAK

Bagenekien olatuek indar handia zutela, baina ez genekien minutu batzuetan halako kaltea eragin zezaketenik. Ondo ikasi dute zer den tsunami Asia hainbat herritan; ez Asian bakarrik, geuk ere ondo jakin dugu. Irudi ikaragarriak ikusi ditugu telebistan abenduaren 26az gero. Hildakoei astetik atera gora egin dute, eta dagoeneko 200.000 baino gehiago dira. Zaurituak, umezurtzak, etxe barik geratu direnak, hau da, kaltetuak, askoz gehiago dira: bost milioi baino gehiago.

Horiek guztiek laguntza behar dute, eta gure herriko Udalak ere, beste herri batzuetan egin bezala, laguntza bidaltzea erabaki du. Nazioarteko herriei eta proiektuei laguntzeko duen diru partidatik %15 bidaliko du, ia 7.900 euro. Ez hori bakarrik, herritarrek animatu gura ditu ahal duten neurrian dirua eman dezaten. Hala adierazi zuen joan den

*Nazioarteko herriei laguntzeko duen diru partidatik %15 bidaliko du Udalak Asiara*

*Herritarren ekarpenak batzeko kutxa egongo da otsail osoan udaletxekeo harreran*

asteen kaleratutako bandoan, eta kutxa jarri du udaletxekeo harreran; otsail osoan egongo da bertan. Aste honetan egin dituzte herritarrek lehenengo ekarpenak, eta gero eta herritar gehiago anima daitezen gura dute Udaleko ordezkariak.

## DIRUA KARITASI

Hildakoen kopurua izugarria izan da, baina galera ekonomikoak ere handiak izan dira Asia hegoaldean: 13 mila milioi eurotik gorakoak, hain zuzen. Aretxabaletako Udalak batutako dirua Karitasko Nazioarteko Lankidetzaren bitartez bideratuko du. Tsunamiaren erruz kaltetuta gertatu zirenei laguntzeko hiru proiektu ditu Karitasek: Indian bat, Sri Lankan bestea eta Indonesian hirugarrena. Janaria, arropak, botikak, edateko ura, medikuen zerbitzuak eta laguntza psikologikoa behar dituzte momentu honetan hiru herri horietan eta Thailandian. Karitas, gainera, herri txikiak berre-raiki guran dabil: etxeak eraiki, eskolak konpondu eta lanean has daitezen arrantzan egiteko ontziak berrituta, hain zuzen ere.

## TXUTXU-MUTXUA



## Kanuto Deunaren ospakizun ezin hobea

Joan den zapatuan ospatu zuten Kanuto Deunaren jaieguna, eta giro ezin hobea sortu zuten herrian. 130en bat lagun batu ziren herri bazkarian, eta antolatzaileak oso pozik zeuden: "Bosgarren urtez egin dugun jai oso polita izan da, baina datorren urtekoa askoz hobea izango da". Arratsaldean kalejiran atera zuten Kanuto Deuna, eta ohiturari jarraituz zaharren egoitzako tabernan, Basotxon, sartu ziren. Dirua lortzeko txartelak saldu zituzten eta zenbaki saritua 1.111 izan zen. /M.A.



## Larrialdi egoerako plana abian egon da

Elurra egin du astean. Elurra, bai mendian, bai herrian, eta horrek buruhauste bat baino gehiago sortu dizkigu herritarroi. Udalak martitzenean jarri zuen abian larrialdi egoerako plana, eta aste osoan egon da, eguraldiak zer egingo zain. Auzoetara doazen bideak zaindu dituzte, auzorik garaienak batez ere: Galartza, Etxezuri baserri ingurua eta Larrino. Egunez Hirigintza Saitetik koordinatu dute plana, eta gauetan udaltzainak ibili dira. /M.A.

## LABUR

### Udaleko Gizarte Zerbitzuetara eta Hirigintza Sailera jotzeko hitzordua egin behar da aurrez

Hemendik aurrera Udaleko Gizarte Zerbitzuetara eta Hirigintza Sailera joan gura duenak aurrez hitzordua egin behar du. Gizarte Zerbitzuen kasuan harreran dagoen administrariak emango ditu txandak, norberari dagokion gizarte laguntzailearendako. Hirigintza Sailari dagokionez, bertako administrariak egingo ditu hitzordua egin gura den kontsulta edo gaiaren arabera.

### Tabernendako I. Mozorro Lehiaketa antolatu du Loramendi EEK Aratuste-domekarako

Loramendi Euskara Elkartek tabernen arteko I. Mozorro Lehiaketa antolatu du otsailaren 6rako, hau da, Aratuste-domekarako. Baldintza bakarra jarri du: taberna eta tabernariak euskal mitologiarekin zerikusia duten mozorroekin janztea. Izena emateko epea otsailaren 3an, eguna, bukatuko da. Irabazlearen berri Aratuste-domeka iluntzean emango dute.

**BASABE**

jatetxea

Basabe bidea z/g  
Tel: 943 79 91 84  
Aretxabaleta

**Expres**



Santakurtz 16  
943 79 23 43



Hirusta  
Jatetxea

Ilargi plaza 4  
943 79 06 57  
ARETXABALETAKO

**JAR EZAZU  
HEMEN  
ZURE PUBLIZITATEA**

**Aretxagazeta**

IKASTAROAK

# Patinaje eta skate ikastaroak jarriko ditu abian otsailean Kirol Zerbitzuak

Zapatuetan emango dituzte eskolak kirol etxean otsaila eta martxoa bitartean


MIRARI ALTUBE

Patinaje eta skate ikastaroak antolatu ditu Udaleko Kirol Zerbitzuak. Otsailean hasiko dituzte eskolak, eta zapatuetan izango dira, kirol etxean. Patinajeari dagokionez bi maila egongo dira: hastapen maila hasiberriendako eta hobekuntza maila.

Hainbat ikastaro antolatu dituzte otsailerako kirol etxean. Datoren astean aquagym eta igeriketa hasiko dituzte, eta laster, patinajea eta skatea.

**HELDUENDAKO IKASTAROAK**

Aspaldi hasi zen Udaleko Kirol Zerbitzuak patinaje ikastaroa antolatzen, eta herritarrek gustura hartzen dutenez urtero antolatzen dute. Helduendako eskolak dira, hau da, 16 urtetik gorakoendako. Hasiberriak 10:00etan hasiko dira, eta teknika hobetzera datozenak 11:30ean. Mikel Morras izango dute guztiek irakasle. Eskolok zapatuetan emango dituzte, zazpi zapatutan hain zuzen, eta izena emateko azken eguna otsailaren 9a izango da.



Patinatzen ikasteko talde bi osatuko dituzte: hasiberriendako eta teknika hobetzeko.

Kirol Zerbitzuetako abonatuak 20 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 24 euro.

Skate ikastaroa berria da gurean, baina gazteek oso gustuko dute. Hori horrela, otsailean eskolak emango ditu Aretxaba-

letan bizi den Sebas argentinar gazteak. Zapatuetan izango dira, 13:30etik 14:30era. Kirol Zerbitzuko abonatuak bederatzi euro ordaindu beharko dituzte hilean, eta gainerakoek 12. Izena emateko kirol etxera deitu: 943 71 26 28.

XAKEA

## Berdinu egin zuen bigarren partida Arlutz Xake Taldeak, baina irabaztea merezi izan zuen

Pasaiako Batalla taldea izan zuen Arlutzek aurrez aurre zapatuan, eta talde gogorra bazen ere berdindu egin zuten partida. Ez hori bakarrik, irabaztea merezi izan zuten. Hala, inoiz baino hobeto hasi dute denboraldia xake jokalarari aretxabaletarrek, eta lau puntu eta erdi dituzte dagoeneko. Bihar, zapatua, Gasteizera joango dira Calasanz taldearen aurka jokatzera.

PILOTA

## Partidu bat galduta eta bestea irabazita hasi dute pilotariak Udaberriko Pilota Txapelketa

Errasti anaiek Elgetan jokatu zuten Udaberri Pilota Txapelketa lehen partidua, eta 22-11 galdu zuten; izan ere, partidu eskasa egin zuten Aretxabaletako anaiek. Uriarte eta Oionek, ostera, 22-21 irabazi zieten eibartarrei partidu gogorra jokatu. Gaur, egubakoitza, bestalde, Lasagabaster eta Alzola bikoteak hasiko du txapelketa Zumarragan.

**KARTELDEGIA**

**FUTBOLA**  
UDA-Real Union  
Preferentea.  
Domeka. 16:30. Ibarra.  
UDA-Mondra  
Lehenengo mailako gazteak.  
Zapatua. 17:30. Ibarra.  
**PILOTA**  
Aretxab.-Goierri  
Lehenengo mailako helduak.  
Zapatua. 18:00. Iturrigorri.  
Lazkao-Aretxab.  
Bigarren mailako helduak.  
Domeka. 10:00. Lazkao.

**EMAITZAK**

**FUTBOLA**  
Trintxerpe 3 UDA 2  
Preferentea.  
UDA/Arizmendi 1 Mondra 3  
Ohorezko gazteak.  
Antoniano 0 UDA/Arizmendi 1  
Lehenengo mailako gazteak.  
Anaitasuna 1 Arizmendi/UDA 0  
Lehenengo mailako kadeteak.  
Ikasberri 1 Arizmendi/UDA 1  
Bigarren mailako kadeteak.  
UDA 2 Anaitasuna 0  
Ohorezko infantilak.

Real Union 4 UDA/Arizmendi 0  
Infantil txikiak.  
Elgoibar 0 Arizmendi/UDA 4  
Emakumezkoen liga F-8.

**PILOTA**  
Elgeta 22 Aretxab. 11  
Lehenengo mailako helduak.  
Aretxab. 22 Eibar 21  
Bigarren mailako helduak.

# Akelarre



## Dekorazio-altzariak

• Proiektuak egiten ditugu

ARETXABALETA • Errekabarren 1 • Tel.: 943 53 33 40



Gortinak  
doan  
lantzen  
ditugu!

Kontsulta ezazu!  
Finantzaketa 3hilabetetatik 24ra.

## GORKA ILEAPAINDEGIA

# “Aretxabaletarrei mesede egingo die herrian bertan sukurtsala zabaldu izana”

**A**rrasateko Gorka ile-apaindegia eraberritu egin dute eta hobekuntza oso nabaria da. Horrez gain, Aretxabaletan sukurtsala zabaldu dute. Gogoz dago Gorka ile-apaindegiko lantaldea, eta eurengana jo dugu.

### Noiz eta non zabaldu zenuen lehenengo ile-apaindegia?

1986an, Aretxabaletan, Bainuetxe kaleko 10. zenbakian. Hain zuzen ere, 1992ra arte egin nuen han lan, baina urte hartan Arrasaten ile-apaindegia zabaltzea erabaki nuen, eta ezinezkoa zitzaidan bi negozio batera eramatea. Ordutik hona Arrasaten lanean jarraitzen dut.

### Orain dela gutxi Arrasateko ile-apaindegian hobekuntza lanak egin dituzue, ezta? Zer egin duzue zehazki?

Hala da. Hobekuntza lan handiak egin ditugu. Apaindegi berritzailea jarri dugu. Guztia bota dugu eta apaindegia goitik behera aldatu eta hobetu dugu, instalazio berriak, lehen ematen ez genituen beste zerbitzu batzuk... Oso txukun gelditu da guztia. Eta hori baino garrantzitsuagoa da bezeroendako, batez ere, eta lan egiten duten profesionalendako erosoagoa dela. Guztiok gusturago egon gaitezten.

### Arrasatekoa itxita eduki duzuen bitartean, lantalde osoak Aretxabaletan egin du lan, ezta?

Bai. Izan ere, ez genien bezeroei eragozpenik sortu gura, eta Aretxabaletako negozioa berriro zabaltzea erabaki genuen. Horretarako, Arrasateko lantaldea hara joan zen Arrasateko lanak bukatu artean. Bide batez, eskertu egin gura genieke bezeroei gurekin duten fideltasuna. Asko autoa hartu eta Aretxabaletara joan dira lanek irauten bitartean. Asko lagundu digute. Urriaren 4tik abenduaren 23ra ibili ginen han. Eta azken egun hartan berriro zabaldu genuen Arrasatekoa.

### Baina ordutik hona bi negozioak dituzue zabalik, ezta?

Bai, hala da. Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Leintz Gatzagan bezeroak ditugu eta erabaki genuen euren erosotasunerako bideragarria zela Aretxabaletan sukurtsal bat zabalik edukitzea. Badakigu eskertuko dutela. Izan ere, Arrasaten aparkatzea gero eta zailagoa da. Eta Aretxabaletako ile-apaindegiaren ondoren ez dago halako arazorik.

### Nor da Aretxabaletako sukurtsalaren arduraduna?

Arduraduna Leire Agirrezabal da. Leire bergararra da. Nire lantaldéan bost bat urte egin ditu. Orain, Aretxabaletako negozioa hark bakarrik eramango du. Ilusio handia du, eta lan egiteko eta bezeroak gustura egoteko gogo handiz dago. Leire ona da eta, gainera,



**“Gure langile kualifikatuek modaren eta bezeroek dituzten premien gaineko ezagutza handia dute”**

**“Saltoki edo zerbitzuetan lan egiten dutenek eskertu egiten dute gure eguerdian ere lan egitea”**



orain dela gutxi, maila handiko ikastaro bat egin du: ideia berri askorekin etorri da, koloreak, mozketak... Horrez gain, besteak beste, gizezkoekin lan egiten espezializatuta dago, baina oso gustuko du, baita ere, emakumezkoen mota askotako aldaketak egitea.

### Beraz, Aretxabaletan emango den zerbitzua ere maila handikoa izango da?

Bai, zalantza barik. Leire oso profesional ona da eta eskola handia du. Aurrerantzean ikusiko dugu beste laguntzailearen bat behar duen. Ordura arte, ni neuz eguazteneko joango naiz hari laguntzera. A, eta bide batez irakurleei gogoratu gura diet Aretxabaletan 25 urte edo gutxiago dituzten lagunei %20ko deskontua egingo diegula.

### Gorka ile-apaindegiko lantaldea gaztea da?

Bai, lantaldea sei neska gaztez osatuta dago. Bat, Aretxabaletan; eta bost, Arrasaten. Kualifikatutako langileak dira, modaren eta, batez ere, bezeroek dituzten premien gaineko ezagutza handia dutenak.

### Eta zer-nolako bezeroak dituzue?

Mota guztietakoak. Emakumezko asko eta gizonezkoak ere ugari. Jende mota guztiarekin lan egiteko gauza gara. Datorrenari asko begiratzen diogu: zelan doan, zer janzten duen, zer gustatzen zaion... Bezeroaren eta profesionalaren arteko elkarriketa egiten dugu. Egiten diogunarekin gustura egotea da gure helburua; eta egiten diogun aldaketak bezeroari on egitea. Horregatik, mota guztietako lanak egiten ditugu: estilo klasikoetatik abangoardistak diren arte, eta, tarteka, ukitu modernoak ere sartzen ditugu.

### Zeintzuk dira zuen espezialitateak?

Mozketa onak egiten ditugu, pertsonarekin ondo doazen mozketak; abangoardiako koloreak sartzen ditugu; moldatzaileak egiten ditugu... Horrez gain, emakumezkoak ospakizunetarako-eta dotore jartzen ditugu, ile bilduak... Batez ere, estilo klasiko-abangoardista. Horrez gain, lan pertsonalizatuetan ukitu modernoak gehitzen ditugu.

### Zein da Gorkaren estiloa?

Gorkaren estiloak dauka ukitu berezia, batez ere, aldaketan eta baita mozketan ere. Bezero batzuk estilo aspergarri batekin badatoz eta zer gura duten ez badakite, bezeroaren eta profesionalaren artean erabaki bat hartuko dugu. Irudi aldaketa onuragarria egin dezaten inizatiba hartzen laguntzen diegu, on egingo diena. Baina ez gara astunak izaten aldaketaren proposamenarekin. Argi dago bezeroak daukala azkeneko hitza. Bezeroa estiloarekin gustura badago, aldaketa txikia egitea gomendatzen diogu, eta oreka lortzen ahalegintzen gara: aldaketa neurrikoa izan dadila.



**GORKA** ileapaindegia

Ordelegia:  
Asteleheneretan : 10:00 - 19:30  
Asteartetik ostiralera : 09:30 - 20:00  
Larunbatetan : 08:00 - 14:00

Ferrerias 35 ARRASATE Tel.: 943 77 13 78  
Bainuetxe 10 ARETXABALETA Tel.: 943 79 70 25

# Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko urtarrilaren 28a / 196. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 20550 ARETXABALETAKO • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: 55200/99

## Aurten ere Urdelardero Eguna ospatuz egingo diete ongietorria Inauteriei

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Inauterien atarian jai bat ospatzen da Eskoriatzan: Urdelardero Eguna. Herriko gaztetxoak baserritar jantzita irteten dira kalera goiz eta arratsaldean. Kantuan aritzen dira, txistorra jaten dute eta pailazoen bisita jasotzen dute. Eguenean ospatuko dute jai.

Orain dela hogeita zazpi urte berreskuratu zuten Urdelardero Eguna Eskoriatzan. Egun berezia izaten da; izan ere, Inauterien hasiera iragartzen duen jai da. Datorren egunean, otsailak 3, ospatuko dute festa.

Goizean hasita arratsaldera arte egongo da zer egin herrian. Goizean, ikastetxeetako umeei kalejira egingo dute. Ekimen horrek Inauteriei hasiera ematen zaie. Ziriak eskuetan hartuta eta baserritar jantzita joaten dira kalean gora eta kalean behera gaztetxoak.

Kalejiraren ondoren, guztiek herriko plazara joan eta txistorra izango dute zain. Askok, makiletan sartzen dituzte jakiak. Jai egiten hasi zirenean oinarri kristaua zuen ekimenak; izan ere, Inaute-



ARTXIBOA

Txistorra jateko aukera izaten dute urtero gaztetxoek; gehienek, ziritan sartzen dute txerrikia.

rien ondoren erlijio horrek txerrikirik ez jateko esaten du. Hala, Garizuma aurretik txerrikia jateko azken eguna izango litzateke Urdelardero.

Arratsalderako ere prestatu dute zer egin. 17:00etan, herriko plazan Kiki, Koko eta Moko pailazoen euren ikuskizuna taularatuko dute. Hala ere, egural-

diak laguntzen ez badu, pilotalekuan eskainiko dute emanaldia. Eguna amaitzeko, berriz, txokolate jana egingo dute. Nork bere edalontzia eraman beharko du.

*Duela hogeita zazpi urte berreskuratu zuten eskoriatzarrek Urdelardero Eguna*

*Hasieran oinarri kristaua zuen jaiak; Garizuma aurretik txerrikia jateko azken aukera*

*Kalejira, txistorra jana, pailazoen ikuskizuna eta txokolatea egunean nagusi*

## Elurraren eraginez HUHEZIn eskolarik ez eta herrian arazoak

Z.V.M.

Aste honetan hainbat eskola bertan behera geratu dira Eskoriatzako fakultatean. Elurra izan da arazoia. Bestalde, bertako arduradunek aditzera eman dutenez, HUHEZiko 26 ikasle atzerrian daude; guztiak Irakasle Ikasketak egiten ari dira.

Elurra iritsi da aste honetan Euskal Herrira, eta baita Eskoriatzara ere. Kaleak elurturik eta mendiak zuri-zuri aurkitu dituzte esko-

riatzarrek. Batzuentzako jolasteko aproposa, kalean ibiltzeko deserosoa besteentzat. HUHEZIn dabilzan hainbat ikasle jai izan dute. Martitzen arratsaldeko eskolak bertan behera utzi zituzten; Prestakuntza Pedagogikoa eta Humanitateetan bigarren lizentziaturako eskolak, hain zuzen ere. Eguaztenean, berriz, goiz eta arratsaldean eten zituzten; Irakasle Ikasketak egiten dabilzanek ere, jai.

### ARGI INDARRIK EZ

Bestalde, herrian hainbat arazo sortu ditu elurrak. Hasiera bate-

an kaleak bustita bakarrik egon arren, etengabeko elurrak bideen egoera kaskartu du. Hori konpondu asmoz aritu dira brigadako kideak buru-belarri lanean. Etenik gabe aritu dira bideak garbitzen; batez ere elizateetarako bideak.

Hala ere, ez da azken egunetan izandako elurteak sortutako egoera deseroso bakarra. Izan ere, elurrak argi-indarra eten zuen martitzen gauean. Ordu mordera egon ziren eskoriatzarrak argirik gabe. Eguazten goizean konpondu zuten arazoa.



Elurraren eraginez bertan behera geratu dira hainbat eskola.



LABUR

**Jende ugari  
 Batasunaren  
 proposamenaren  
 aurkezpenean**

Martitzen ilunkaran aurkeztu zuten, Eskoriatzan, Batasunak Anoetan egindako proposamenaren edukia. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan elkartu ziren, eta lepo bete zen.

Gutxi gorabehera 50 lagun elkartu ziren udaletxean. Hasieran, hogeit hamar minutuko bideo bat eskaini zieten bertaraturakoei. Ondoren, Anoetako proposamena zertan datzan azaldu zuten eskoriatzarrei Jon Gorrotxategik; hura izan zen hizlaria. Ondoren, baina, entzuleen txanda iritsi zen. Askotariko galderak egin zizkioten Gorrotxategiri. Ez ziren soilik proposamenari buruzko galderak izan; Ibarretxe Plana eta beste alderdi batzuei buruzko galderak egin zizkioten. Hitzaldiaren antolatzaileak pozik azaldu dira. Izan ere, herriko hainbat eragile eta alderdi politikok hartu zuten parte martitzen arratsaldeko hitzaldian.

**Hiru hilabete barru  
 wi-fi sistemaren  
 azpiegiturak jartzea  
 espero dute**

Zarimutz, Mazmela eta Marin elizateetara Internet iristeko wi-fi sistema erabiliko dute. Ez du kablerik erabiltzen, uhin bidezko sistema da eta. Antena bat jarri behar da seinalea baserrietara irits dadin, eta badakite nork egingo duen instalazioa: Telecom Novatecno enpresa arabarra arduratuko da horretaz. Hiru hilabeteren buruan ipiniko dutela uste dute. Wi-fi sistemaren azpiegitura jartzeko 130.000 euro inbertituko ditu Udalak. Hala ere, Udalak ez du guztia ordainduko; Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak kostuak ordaintzen lagunduko diote. Etorkizunean Bolibar eta Leten ere seinale bidezko sistema ezarri gura dute.

ATXORROTX GKE-RENTZAT DIRULAGUNTZA HANDIENA

**Gobernuz kanpoko bost  
 erakunderi dirulaguntza**

Z.V.M.

**Udalak 22.429 euro emango dizkie aurten gobernuz kanpoko hainbat erakunderi. Lankidetzak programak antolatu eta garatzeko asmoz ematen ditu laguntzak. Aurten bost erakundek jasoko dute dirua, eta garapen bidean dauden herrialdeetara bideratuko dute, batez ere.**

Eskoriatzako eta baita beste toki batzuetako hainbat gobernuz kanpoko erakunderi ere dirulaguntza ematen die Eskoriatzako Udalak urtero. Aurrekontu-sail bat erabiltzen dute horretarako; GKEetako lankidetzak programak antolatu eta garatzeko, hain zuzen ere. Aurten, aurrekontu-sail hori 22.429 euro izango da.


Uztailaren 30ean argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean GKEentzako dirulaguntzak eskatzeko oinarriak. Guztira hamar erakundek eman zuten izena herrian. Ez dute guztiek eskuratu dirua; baldintzak betetzen ez dituztelako bost erakunde geratu dira laguntza jaso barik.

**ERAKUNDEEN EGITASMOAK**

Gobernuz kanpoko bost erakundek jasoko dute, beraz, aurten dirulaguntza. 1.725,31 euroko laguntza bi erakundek eskuratu dute: Mundu Solidarioa Helburu eta Boherik.

Lehenengoak Nikaraguan egikarrituko du bere asmoa. Izan ere, bertako gutxituen bizi-maila hobetu gura dute, horretarako egoitza bat sortuta. Boherik, aldiz, Venezuelako Zulia estatuan kooperatiba sustatzeko eskola bat sortu gura du.

Txiapasekin Elkartasuna eskal plataformak ere jaso du dirulaguntza. 5.175,93 euro eman dizkiote. Nahiz eta bertako erakundea ez izan, herriarekin lotura estua du. Osasunarekin lotutako proiektua garatu gura dute eta farmakopea eta sendabelarrei buruz Txiapasako 60 osasun sustatzaile hezi. Heziketa horren azken onuradunak, aldiz, hamar herritan banatuta dauden 90.000 biztanle dira gutxi gorabehera.



lax, Txiapasekin Elkartasuna erakundeak Aste Zapatista antolatu zuen.

ARTXIBOA

Bestalde, Debagoieneko gobernuz kanpoko erakundeen partzuergoak diru kopuru bera jaso du. Euren esanetan, irakaskuntzara bideratuko dute dirua. Ibarreko hainbat irakasleri garapen bidean dauden herrietako gizon-emakumeen borrokaren berri eman eta haiek ikasitakoa ikasleei helaraztea da helburua.

**ATXORROTX**

Dirulaguntza eman zaien bost erakunderen artean kopuru handiena jasoko du Atxorrotx GKEK. Laguntza 8.626,54 euro izango da. Aditzaera eman dutenez, bi arrazoi nagusi daude horretarako. Batetik, aurkeztu den herriko GKE bakarra da; eta bestetik, Atxorrotxeko

kideek ez dute beste inon dirulaguntzarik eskatu. Montevideoko (Honduras) San Jose komunitatean hainbat etxe egin gura dituzte. Hogei eraikiñ guztira, bloke eta teilatuak dituzten etxebizitzak.

Baina ez dituzte eurek egingo etxeak. Dirulaguntzarekin etxeak eraikitze materiala erosiko dutela eman dute aditzera. Gainera, igeltsero profesional bat kontratatuko dutela azaldu dute Atxorrotxekoek. Etxearen jabeak laguntzeko xedea izango du, egoitzak nola eraiki erakusteko, hain zuzen ere. San Jose komunitatean bizi diren 60 familia Eskoriatzako Atxorrotx elkartearen proiektuaren onuradunak izango dira datuen arabera.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 54 34
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetzak	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

**HITZALDIA**  
 Amuskak antolatutako *Astrologia eta norberaren ezagutza* hitzaldia atzeratu egin da. Otsailaren 2an, eguaztena, izango da berbaldia, 18:30ean, kultura etxean.

**PARTIDUAK**  
 Zapatuan, hilak 29, kiroldegian bi partidu egongo dira ikusgai. Areto futboleko euskal ligaren barruan, Eskoriatza KE-Goierrri KE partidua egongo da ikusgai, 16:00etan. 18:00etan, berriz, saskibaloi-k norgehiagoka: Eskoriatza KE-Zarautz KE.

AXTROKIRENAGENDA

**2004KO KUOTA**  
 Axtrokik bere bazkideei jakinarazi nahi die 2004ko bazkidetzak kuota otsailean kobratuko duela. Horren arrazoia, kultura elkarteak ordenagailuekin izandako hainbat arazo. Argibide gehiagorako: 943 71 54 34.

**NAIRA**  
 Taberna

Aranburuzabala 16  
 Eskoriatza. 943 71 46 71



Otsailak 12tik 19ra  
**itxita!**

Aranburuzabala 22, behea  
 ESKORIATZA  
 Tel.: 943 71 51 20




Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8  
**ESKORIATZA**  
 943 71 40 63

LENIZ, C.B. KONPONKETAK



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA



Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza

# Guraso elkarteak txikientzako jokoak antolatu ditu Inauterietan egiteko

Z.V.M.

Guraso elkarteak arduratu da aurten ere Inauterietako egitarauaz. Askotariko jokoak prestatu dituzte. Altxorraren jokoak, esaterako, herrian zehar egingo dute. Gainerakoak, berriz, herriko pilotalekuan egingo dituzte. Eguna amaitzeko afaria egingo dute.

Aratusteetarako gehiena prestatu dute dagoeneko guraso elkarte lagunek. Otsailaren 5ean, datorren zapatuan, izango da egun handia. Jendeak gogoko duen mozorroa soinean jarri eta hainbat ekimenetan parte hartzeko aukera izango du. Batetik, altxorraren jokoa jolasteko aukera

izango dute; txikienean, berriz, pilotalekuan antolatuko dituzten jokoean. Gauean, bestalde, afaria egingo dute guztiek elkarteetan. Udalak antolatzen du ekimena, eta otsailaren 3rako, eguenerako, interesatuek izena eman beharko dute Labidea dendan.

## AURREKO ASTEAN, GASTEIZEN

Aurreko zapatuan Gasteizen izan ziren GUREL elkarte lagunak. Guztira 14 lagun joan ziren, bederatzi gazte eta bost guraso. Haste-ko, izotzean patinatzen ibili ziren. Hainbat ipurdiko hartu zituzten, baina primeran ibili ziren guztiak. Ondoren, gura izan zutenak Txiki Parkera joan ziren, eta elkarte-ko idazkari Itsaso Eginok adiztera eman duenez, batzuek bietan hartu zuten parte.

*Eguenerako, afarian parte hartu gura duten guztiek izena eman behar dute Labidean*

*Gasteizen egon ziren aurreko zapatuan; ederto aritu ziren patinatzen eta Txiki Parken*



Pilotalekuan askotariko jokoak antolatuko dituzte; ia primeran aritu ziren herriko gaztetxoak.

## Elurraren eraginez HUHEZIn eskolarik ez eta herrian arazoak

Elurra izan da aste honetan protagonista ibarrean; eta nola ez, Leintz Gatzagan ere izan du eragina. Martitzenean izan ziren lehenengo arazoak Gatzagan. Izan ere, Leintz Gatzagako mendatea itxi egin zuten, segurtasunagatik. Elurra egin zuen arren, errepidean izotza zen nagusi, eta hainbat arazo ekiditeko asmoz hartu zuten neurri hori.

Eguaztenean, berriz, elur gehiago pilatu zen, bai kale eta baita errepideetan ere. Hori ikusita, Udalak horrelako egoeretan erabiltzen duen traktorea atera zuten. Pala bat du, eta bere zeregin baserrietarako bideak

zabaldu eta kaleetako elurra kentzea da, batez ere. Gatza ere botatzen du. Hala ere, eguaztenean Gure Ametsaraino igo zen, eta bertatik Marulandara eta ondoren baserrietako bideak irekitzen aritu zen.

Udaleko ordezkariak esan dutenaren arabera, "automobil txikiak ezin ziren bidean ibili; handiek nolabaiteko segurtasuna zuten".

Hainbat tokitan 38 zentimetro baino gehiagoko elurra izan zuten. Bestalde, martitzen gauean itzalaldia gertatu zen, eta eguaztenean, 10:00etan izan zuten gatzagarrek berriz ere argia.



Astean behin baino gehiagotan itxi dute Gatzagarako bidea.

## Txalaparta taberna



Aranburuzabala 25  
ESKORIÁTZA

JAR EZAZU  
HEMEN  
ZURE PUBLIZITATEA

Ze barri?



MIRENTXU  
TABERNA

Kafe goxoa hartzeko  
Tel.: 943 71 41 67

# Aretxabaleta okindegia

On egin San Blasetan!



Loramendi 6 • 943 77 17 19  
Basabe 2 • 943 77 00 81  
**ARETXABALETA**  
**Bertako okina**



# HARMAILATIK

Debagoieneko Kirola Goiena Telebistan



Goiena Telebista

Ikusiko  
duzu!

**Astelehenetan**

21:00ean eta 22:00ean GOITBn

**Aurkezlea: Julen Iriondo**